

Egun on.

Hasi aurretik, eskerrak ematea, gaurko egunean Oñatiko Osoko Bilkura aretora etortzearen. Dakizuen moduan, legealdi erdiko balantzea eskaini gura dizuegu gaurkoan. Helburu horrekin, ba, neu, Iزارo Elorza Arregi alkatea eta Xabier Igartua Loidi zinegotzia/alkateordea etorri gara udal gobernuaren izenean.

Esan beharrik ez dago bi urte hauetako testuingurua ez dela batere erraza izan. Guztiz ezezagun genuen testuingurua sortu du COVID-19ak, unean uneko baldintzak ezarri ditu, esangura handia izan du gizartearen norabidean... Dena den, momentuko egoerara moldatzen jakin izan dugula esango nuke, unean uneko exijentziei erantzun egokia emanaz. Gainera, esango nuke, geure balioak eta izatea nabari izan direla eta nabarmentzen ari direla pandemiaren kudeaketan. Egia da pandemiak eragina izan duela herri programako zenbait gairen gauzatzean, baina eguneroko erabakietan, beti egon da presente geu garen hori.

COVID-19aren testuingurupean egindakoen adibide batzuk aipatzearren: azokaren, eta, oro har, lehen sektorearen aldeko apustu sendoa egin genuen hura gauzatzeko beharrezko ziren bitartekoak jarri; herriko merkataritzak pairaturiko kalteak leundu guran, bono sistema jarri genuen martxan; herriko negozioendako diru-laguntza bereziak abiarazi genituen; gizarte laguntzak indartu genituen; elkar zaintzarako dinamika kolektiboak, komunitarioak, bultzatu genituen; kultura emanaldiak eskaintzen segitzeko behar beste bitarteko jarri genituen, kultura segurua dela aldarrikatzeko; kontziliazioaren mesedetan, udako zaintza hezitzailea jarri genuen herritarren eskura...

Asko izan dira bide horretan egindakoak; eta, asko, egiten gabiltzanak. Baina, zailtasunak zailtasun, ez diogu herri programakoa egiteari utzi. Borondatea badugulako, lanerako gogoia bezala. Eta, zela ez, dabilen herri izaten segi gura dugulako. Esan moduan, asko eta askotarikoak dira orain arte egin ditugunak, hemen, batzuk besterik aipa ezin ditugun arren.

Partaidetza eta garapen komunitarioaren alorrean, esaterako, argia zen helburua: Oñati parte hartzen duen herria izan dadin bitartekoak eskaintzen segitzea, eta, oro har, gaian sakontzea. Hori horrela, dinamika ezberdinak ditugu martxan udaleko zenbait alorrekin elkarlanean (hor daude hirigintza, haurrak eta gazteria, hezkuntza, berdintasuna...), urratsak ematen segitzeko beharrezko baita gainerako alorrekin sinergiak eta elkarlana bultzatzea. Horrez gainera, Gobernantza eta Partehartze araudia lantzen jardun dugu. Finean, esan daiteke alorrarekiko eta filosofiarekiko egindako apustuaren adierazle dela hori. Ez daude halako asko.

Kulturan sakonduz, esango nuke eguneroko jarduna bera alorrarekiko eta sortzaileekiko dugun errespetuaren adierazle dela. Haien alde ere jardun baitugu lanean, haiekin, haiengatik eta haiendako. Hainbaten artean, herriko bestelako kultura eragileekiko eta ekintza antolatzaileekiko elkarlanean sakondu dugu. Jakin badakigu herri aberatsa dugula kultura eskaintzari erreparatuta, eta horrek hala izaten segi dezan bitartekoak jartzen segi gura izan dugu. Horrez gain, Erreusak bezalako etnografia egitasmoak edota Gerardo Elorzaren bilduma bezalakoak lagundu ditugu, eta sinergiak ere bultzatu ditugu, esaterako, Udalbiltzaren *Geuretik Sortuak* ekinbidearekin bat eginez. Ostera, euskararen alde ere segi dugu lanean. Hainbat izan dira horretarako egindakoak: salmena makinetako euskara maila hobetu dugu; hitanoa, hika,

noka, eta, oro har, oñatiera bultzatzeko egitasmoetan jardun dugu; euskara ikasi ahal izan dezaten, batez ere ostalaritza eta zaintza alorreko migratzaileei zuzenduriko laguntza ildoak argitaratu ditugu...

Gizarte zerbitzuak eta ongizatea alorrean ere askotarikoak izan dira egindakoak. Besteren artean, urratsak egin ditugu bakardadean edo isolamenduan dauden adinekoen bizi-baldintzak hobetzeko bidean, tartean, Begirada Adia programaren bidez. Eta, ostera, etxez etxeko langileen lan hitzarmena hobetzen jarraituko da, eta kalitatezko zaintza arreta jarri. Berdintasun planean ere jasoa dago hori. Integrazioa lantzen ere jarraitu dugu, eta unean uneko beharrak asetzeko neurriak hartu ditugu. COVID-19aren testuingurua da horren erakusgarri.

Era berean, ez dira gutxi izan bi urte hauetan sozioekonomiaren alorrean egindakoak. Oro har, esango nuke, egindakoek nabarmen erakusten dutela udal gobernu honek herriko negozioen alde duen jarrera. COVID-19ak ezaugarrituriko testuinguruan, anitzak izan dira hartu behar izan ditugun neurriak, batzuk, epe luzera begirakoak, eta, beste batzuk, unean unekoak, momentuko larritasunari erantzuna eman beharrean adosturikoak. Esaterako, merkataritza biziberritzeko plan estrategikoa eguneratu dugu; hainbat ekinaldi egin ditugu herriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu sektoreko enpresen aldeko *Herritik zuztarrera* kanpainapean; merkataritza eredu lokala eta jasangarria bultzatu dugu; unean uneko diru-laguntzak eta dinamikak jarri ditugu martxan... Horrez gain, turismo plan estrategikoa ere landu dugu, pabilioi hutsen diagnostikoa egin dugu, aurrerapausoak egiten gabiltza ekonomia sozial eraldatzailearen bidean...

Ostera, gogor gabiltza lanean berdintasunaren alorrean ere. Batetik, Jabekuntza Eskolarekin darraigu, eta, horretan geratu barik, neurriak hartu ditugu hura indartzeko. Horrez gain, Emakumeen Kontseilua kontsolidatzea lortu dugu. Eta Oñatiko Berdintasun Plana landu dugu. Gainera, ezin daitezke aipatu barik utzi parte hartzearen alorrarekin batera eginiko diagnostikoa, emakumeen etxearen proiektuan emaniko hasierako urratsak... Esan gabe doa berdintasuna presente dagoela Oñatiko Udalaren egunerokoa, eta, oso aintzat hartua dela, esaterako, hirigintza proiektuetan, antolaturiko ekintzetan, ohiko funtzionamenduan...

Bestetik, kirolari dagokionez, esan beharrik ez da bi urte hauetan Zubikoa kiroldegia birgaitze lanak egon direla geure jardunaren erdigunean. Finean, 8,5 milioi euroko obra bat da eta haren gainean egon beharra dago halabeharrez, unean unean sor daitezkeenei erantzun azkarra eta eraginkorra emateko. Eta, esango nuke, oñatiarrok kirolerako azpiegitura txukuna izango dugula. Egoki kudeatu dugu gaia eta pozik gaude emaitzarekin. Dena den, horrez gain, legealdi erdi honetan egin dugu bestelakorik: Azkoagain futbol zelaiko irisgarritasunean plana landu dugu, aldagela berriak jartzearekin batera; POZ ohitura osasuntsuen orientazio zerbitzuan sakondu dugu; herriko kirol eragileekin lanean jardun dugu...

Bestalde, aipatu beharrekoak ditugu lurralde antolaketari dagokionean egindakoak. Hirigintzan sakonduz, esan beharra dago bete-betean sarturik gaudela Hiri Antolamendu Plan Orokor berriaren lanketan. Bukatzean da haren aurrerakina lantzeko fasea. Apurka-apurka garatzen gabiltzan plana da, herritar askoren inplikazioa eskatzen duena. Bide onean doa. Eta, horretan geratu barik, bidegorri zati berria egin dugu Santxolopeztegin, Olakua eta San Lorentzoko irisgarritasuna hobetzen ari gara... Eta, era berean, buru-belarri gabiltza ingurumenaren alorrean. Esan beharrik ez da martxan dagoela natur eskolaren

eraberritzea eta horrek eten bariko jarraipena eskatu duela. Xehetasun guztiak zaindu gura izan ditugu, eta, horri esker, esango nuke oso berezia izango dela herriko natura eskola. Ez dira halako asko egongo. Bukatzean da obra. Horrez gain, hainbat komun jarri ditugu herriko bidegorri sarean, txirrindularientzat eta patinetean doazenendako aparkalekuak ugaritu ditugu, hondakinak murrizteko kanpainak jarri ditugu martxan, energia berriztagarria bultzatu dugu eta abar. Eta ezin gaitzke auzoez ahaztu. Besteak beste, auzo-alkateen foroa berreskuratu dugu, Udalaren eta landa auzoen arteko harremanean sakondu dugu, auzoetako internet arazoa konpontzeko lanean gabiltza, Araotz biziberritzeko ostatuaren proiektua amaitzean gaude...

Ostera, haurrak eta gazteria alorrari dagokionez, askotarikoak izan dira egindakoak. Esaterako, gazteen emantzipaziorako diru-laguntzak indartu ditugu. Hasteko, herri programan azaldu bezala, eskatzaileen adin muga zabaldu genuen lehen urtean, alegia, 30 urtetik 35 urtera igo genuen gehieneko adin muga; eta, bigarren urtean, 15.000 euroekin indartu genituen laguntzok. 65.000 euro izan dira azken deialdian emantzipaziorako. Beraz, esan daiteke, argia dela gazteen emantzipazioa errazteko hartua dugun jarrera. Bestetik, ezin daiteke aipatu barik utzi haur eta gazteen ahalduzuean sakontzeko hartua dugun bidea. Tartean, udal zerbitzuetan indartzen gabiltza parte hartze dinamikak eta helburu zehatzeko parte hartze prozesu berria jarri da berriki martxan. Finean, haurrak eta gazteak eta haien iritziak oso aintzat ditugu hartuak.

Eta hezkuntzaren alorra ere erdigunean dugu jarria. Asko izan dira bi urte hauetan egindakoak. Besteren artean, urrats garrantzitsuak egin ditugu Oñati herri hezitzailea izan dadin eta hitzarmena sinatu dugu OinHerri herri hezitzailea sustatzeko elkartearekin. Dagoeneko nabari dira herri hezitzaile izateko harturiko erabakiaren lehen fruituak, eta, seguru naiz, horiek ugariagoak izango direla etorkizunean. Bestetik, mugikortasun jasangarriaren proiektuan sakondu dugu eta ikastetxeetako hainbat kanpo espazio moldatu ditugu, haiekin elkarlanean, beti ere. Hor daude ikastetxe kanpoko espazioak seguruago bilakatzeko harturiko neurriak, bizikleta aparkaleku estalkiak, patineteendako aparkalekuak...

Ikusi eta entzun duzue, asko eta askotarikoak izan dira bi urte hauetan egindakoak. Eta aipatu barik utzi ditugu egindako beste asko. Oro har, testuinguruak testuinguru, herri programan esandakoak egiten jardun du udal gobernu honek, eta COVID-19aren testuinguruaren kudeaketa alor guztietan integratzea egokitu zaigu. Baina jakin izan dugu aurre egiten. Eta bagabiltza egiten, aldaezinezko zenbait baldintzekin: herriaren alde egitea, herriarekin egitea, herriarentzako egitea eta dabilen herri izaten segitzea, beti, geure baloreekin eta izatearekin koherentzian, eta aurrera egiten segitzeko konbikzioz.